

musikagela



SOINU MATERIALA MAILEGATZEKO ZERBITZUA

2014KO URRIA

1. SARRERA

Musikagelako erabiltzaileen esku jarri da audio-materiala mailegatzeko zerbitzu bat grabaziorako eta zuzeneko ekitaldi eta kontzertuetarako.

Mailegu-araubidea da berme gisa fidantza bat jartzea, eta kuota batean kobratzea materialaren mantentze-lan gisa.

2. ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA:

2.1. ESKURATZEA

Materiala eskuratzeko, Musikagelaren zerbitzua eskuratzeko baldintza orokorrak bete behar dira, eta gainera:

- Mailegatutako materialaren erabiltzaile guztiek mailegatutako materialaren erabilerari eta zainketari buruz aldizka edo berariaz antolatzen diren oinarrizko prestakuntza-ikastaroren batean parte hartuak izan beharko dute. Mailegatutako materialari (zuzenekoari edo grabazioari) dagokion ikastaroa egina izan beharko da. Ikastaro hori ez da nahitaezkoa izango soinuari buruz prestakuntza tekniko bat egiaztatzen duten pertsonentzat.
- Materiala zer proiektutarako eskatzen den zehaztu beharko da. Materiala ezingo dute mailegatu profesionalak edo enpresek beren jarduera profesionalarekin lotutako proiektuetan erabiltzeko.
- Ekipamendu jakin bat Egiako Kultu Etxearen barruan soilik erabil daiteke.
- Mailegua egitean, pertsona bat izendatuko da mailegatutako ekipamenduaren arduradun materiala itzuli arte.

2.2. EPEAK

Materiala egutegiko egunetan mailegatuko da, gehienez 8 egunetan, eta 16ra luza daiteke, beste erabiltzaile batek material bera erreserbatzeko eskaera egin ez badu.

Gehienez 32 eguneko muga dago erabiltzaile eta urteko elementu bera mailegatzeko.

2.3. ERRESERBAK

Erreserbak on-line egingo dira Musikagelaren web-orrian, edo EGIAKO KULTUR ETXEAN (Baztan kalea 21 – 20012

Donostia) Tel.: 943 298 032 - 943 291 514.

Erreserba egiteko, eskaera-formularioa bete beharko da eta dagokion **kuota** kreditu-txartelaren bidez ordaindu. Materiala jasotzeko, gainera, **fidantza** ordaindu beharko da, hori ere kreditu-txartelaren bidez.

Materiala gehienez 2 hileko aurrerapenaz erreserba daiteke. Erreserba 7 egun baino gutxiagoko aurrerapenaz ezeztatzen bada, ordaindutako **kuota** ez da itzuliko.

2.4. KUOTA

Elementu bakoitza mailegatzeko, erosketa-prezioari dagokion % 1eko kuota ezarri da **mailegu-egun bakoitzeko**.

Musikagelaren entsegu-lokalen erabiltzaileentzat, kuota erosketa-prezioaren % 1ekoa izango da **lau mailegu-eguneko**.

2.5. FIDANTZA

Elementu bakoitzari fidantza bat esleituiko zaio, erosketa-prezioaren % 5koa.

Materiala mailegatzeko unean, zerbitzuaren arduradunak eta erabiltzaileak elementu guztiak egoera onean daudela egiaztatuko dute. Mailegatutako materiala egoera onean itzuli beharko da, eta itzultzeko unean egiaztatuko da hori. Hori horrela ez bada, erabiltzaileak elementu hondatuaren truke jarritako fidantza itzultzeko eskubidea galduko du, eta erreklamazio bat jar daiteke elementuaren erosketa-prezio osoagatik, erabilera arduragabea egin dela detektatuz gero.